

Copyleft-a eta amankomun kulturala

laguntza testu bilduma

HackMeeting

2007

Gernika

- **Miquel Vidal eta Amador Fernandez-Savater:** “Babestu ala espoliatu. Amankomuna jabego intelektualaren aurka”
- **Pablo Aspiroz Iribas:** “Copyleft-a eta edizioa. Kasu praktiko bat”
- **Xabier Barandiaran (elkarrizketa):** “Copyleft. Sorkuntza elkarbanatuz defendatzen da”
- **Claude Demarigny:** “Kreazioa mundializazioa eta teknologia berrien aurrean”
- **Traficantes de Sueño:** “FAQ sobre edición y copyleft”
- **Eben Moglen:** “Liberar la Mente. El software libre y el fin de la cultura privativa”

Bilduma hau kopiatu, eraldatu eta edonola elkarbanatzeko askatasun osoa daukazu.

Babestu ala espoliatu?

Amankomuna jabego intelektualaren aurka

Miquel Vidal eta Amador Fernández-Savater

Copyright murriztailetik haratago bitziza dago. Naiz eta SGAE, BSA eta RIAA bezalakoek etengabe botatzen dituzten meatuak eta mezu apokaliptikoak. Erakunde hauek gizakiaren burutazioak merkatugai bihurtzen dituzte eta guztionak diren ondasun oparoekin etekin zikinak ateratzen dabilta. Era horretan pentsamenduen lehortea eragiten dute, baina hala ere, ugaritasun printzak badira ekoizpen intelektualaren alorrean behintzat. Eta behar den indarra egin ezkerro, lortuko dugu arrakala digitala apurtzea, ezagutza elkarbanatzea, etsa baita kultura eta arte ere; egun daukagun industria eraldatuz. Eta guzti hori, biztanleriaren oinarritzko eskubideak zapaldu gabe, kode penala gogortu gabe eta jakintza elkartrukatzea zigortu gabe noski.

Kopia-eskubidea murriztearekin mozkinak ateratzen dituztenak egia estali nahian badabilta ere, jabego amankomunaren esparruan, beti izan dira sormen adierazpenak herriko kulturaren. Eta kultura mota hau bizi-bizi dago gaur egun kultura digital eran. Globalizatuz doan ekonomia hontan, salgaiak gero eta maizago dira ukiezinak, eta hori eztabaida publikoaren lapikora eramane beharra dago hanbat arinen. Izan ere, izaera aldaketa honek kolokan jartzen ditu azken bi mendeetan erabilitako copyright eta patenteen legeak. Orain, trukatzeko diren eduki kultural eta artistikoak ukiezinak dira eta ez dituzte ohiko fisikaren arauak jarraitzen. Mundu materialarentzako egindako sistema legala ziberespazioan nola edo hala mantentzea ez da bide zuzena. Zeregin horri burugogor eustea zekulako hankasartzea da, eta itsukeria horren ondorioak guztiok ordaintzen ditugu: enpresen gehiegikeriak, lege bidegabeak, bistanleriaren kriminalizazioa non denok <<pirata>> potentzialak garen, etab. Patenteak daukatenei boterea ematen dien politika murriztaileekin ez da sormena bultzatzen, ezta gutxiago ere, elkarbizitza pozoitu besterik ez da egiten, berrikuntzaren iturriak lehortuz eta berrikuntza bera geldotuz. Baina hori bai, bidegabekeria guzti hauek jasaten ditugun bitartean korporazioek eta beraien abokatuek poltsikoak lasai lasai betetzen dituzte.

<<Jabego intelektuala>> dituen ezaugarriek besteak salgai arruntetatik desberdintzen dute. Alde batetik, iraunkortasun historikoa ematen dion komunitate baten beharra du, eta horrek ematen dio zentzua eta balioa obrari berari. Eta bestetik, ideiak beste gauzak salgai bihurtzen dituen murriztasun printzipiotik at daudelako. Nolatan murriztu daitezke abesti, algoritmo, testu, software programa, etab. bezalako <<ondasun mugagabeak>> ezin badira <<gastatu>> ez agortu? copyright-a eta patenteak justifikatzen dituen kontratu soziala apurtu ondoren, lan intelektualen kopiak egiteari murrizketak ezartzea indarrez egiten da, eta lehiatze horrek arazo mordoak dakartza: mehatxuak, auziak, isunak, zigorrak, etab. Liburuen eta disken multinazionalak, eta orokorrean publikoaren eskubideak moztea defendatzen duten guztiak, denbora gelditu ahal izango balitz bezala jokatzeko dute, murrizketa fisikoaren aroa luzatu beharra egongo balitz bezala egiten dute, orainarteko eredu industrial eta kulturala gordetzeko. Baina gero eta eraginkortasun txikiagoa dauka bizi dugun ereduak; gero eta bidegabeagoa bihurtzen ari da. Eta

bitartean, orain eskura dauzkagun aukerei uko egin behar diegula suposatzen da, esparru inmaterialean behintzat handitzen doan oparotasunari eta askatasunari muzin eginez. Ugaltze honen primerako adibidea software librea dugu: bost kontinenteetan zehar barreiatutako burmuin langileek elkarlanean dabilta eta kalitaterik oneneko puskek askatzen dituzte, sekulako obra moldakor eta mugagabe bat burutuz. Bururik gabeko elkarlan hau eta beste edozein, ezinezkoak izango lirakeke lehen aipatutako eredu jabedunak sormenaren lurralde guztietara helduko balira.

Jardunaldi hauetan dugun asmoa analitikoak da gehien bat, akintzaren aurretik ezagutza egon behar dela uste bait dugu, eta akintza orok helburu eta testuinguru zehatz bat eduki behar du.

Tresnarik honenak eskuratu nahi ditugu analisi eta kritika baten ostean, jabetza eta balioaren ideiak gu denontzako nolako aldaketa izan duten ulertzeko, eta baita aberastasunaren ideia ere. Izan ere, oraindik gutxi dira gertatutako aldaketa hau ulertzen dutenak, eta horregatik gainera datorkigun nahaspilari aurre egiteko prestatu behar gara. Zenbat eta gehiagotan jabetza mota berria antzinako metodoekin babesten tematuz, arazoak gero eta handiagoak izango dira eta bidegabekeria gehiago eta gehiago sufritu beharko dugu.

Eta honen aurrean zer egin? Ziur norbaitek konponbidea copyright-a pikutara bidaltzea dela pentsatuko duela, baina horrek neurri murriztaileak justifikatzeko eta gure indarrak alperrik galduarazteko baino ez du balio. Horregatik jardunaldi hauetako helburuen artean, partaide guztion artean tresna kontzeptualak eta eragingailu praktikokoak sortzea dago. Horrela, jabetza intelektualaren kritika egokia egin ahal izango da, eta era berean aske ibili eta erabili daitezkeen lanak sortu ahal izango dira.

Gure ustez, ezin dugu utsi botere ekonomikoak dutenek legea eta teknologia norberaren irabazinhirako zikindu ditzaten. Zergatik utsi funtsezko eskubideak murriztea, adierazpen askatasuna arriskuan jartzea, eta aurrerapen zientifikoa, eta kontsumitzailearen eskubideak, eta beste pertsonekin lankidetzan aritzea? Diru etekinetan bakarrik kezkatzen diren enpresei mesede egiteko? Eta dena norbaitek egoera zehatz batetan legez kanpoko kopia bat egi dezakeelako? Aitzakiak ahulegia ematen du.

Oharra: 0.1 bertsioa

COPYLEFT:

Textu hau Creative Commons ShareAlike lizentziapean dago. Libre zara testu hau modifikatzeko, elkarbanatzeko eta kopiatzeko lizentzia berdina mantendu ezkerro. Lizentzia Osoa hurrengo web horrialdean eskura dezakezu:

<http://creativecommons.org/licenses/sa/1.0/>

Copyleft-a eta edizioa: kasu praktiko bat

Pablo AZPIROZ IRIBAS*

 Copyleft hitza, bere zantzurik ez duzula baina bat-batean nonahi ikusten hasten zaren hitz horietakoa da. Berez, lege estrategia moduan sortu zen programazio informatikoaren alorrean, software librearen aldeko mugimenduaren beharrek bulztatua. Hau honela izanik, copyleft delakoa lege kontzeptua baino kontzeptu politikoa da, eta horrexegatik software librearen aldeko mugimenduak berariazko hainbat tresna juridiko garatu behar izan ditu: GNU lizentziak, Free Software Foundationek egindakoak alegia.

Ekimen honetan oinarrituta, hainbat musikarik, idazlek, editorek eta esparru guztietako sortzailek hasi dira erabiltzen copyleftak ziurtatutako zenbait askatasun beren lanekiko. Askatasunok, laburbilduz, ahalbidetzen dute hauen lanen kopia egitea, eraldatzea, edo lan hauek eratorri eta banatzea —xede komertzialekin edo gabe—. Hala ere, kultura-alorrera etorrita, egile askok askatasun hauetako batzuk ezinbestekotzat jotzen ez dituztenez eta, batez ere, lan askok inbertsio handien beharra dutela eta beren banaketa komertziala librea izanez gero ez lirakeela sortuko kontuan harturik, nolabaiteko onarpena dago copyleftak berma ditzan, gutxienez, kopiatzeko askatasuna eta banaketa ez komertziala egiteko askatasuna. Gauzak honela, eta kultura “askatzeko asmoz”, 90eko hamarkadaren hondarrean hainbat eragile hasi ziren garatzen bereziki kulturari egokitzen ahal ziztaizkion lizentziak, eta hauen artean badira batzuk gailendu direnak: Creative Commons-ek atonduriko lizentziak.

53



Berez, Creative Commons 2001ean sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta sormenezko lanak partekatzeko oztopo legalak murriztea du helburu. Lizentzia sorta bat eskaintzen du, bakoitzak babes edota askatasun maila batekin. Era honetan, lizentziak egokitzen dira egilearen beharretara zein honek berak bere lanendako baimentzen duen erabilpenetara. Creative Commons lizentziarik murriztaileenak gutxieneko askatasun hauexek bermatzen ditu: kopiatzekoa, banatzekoa, erakustekoa eta testuaren interpretatzekoa, betiere jatorrizko egilea aitortzen bada, xede komertzialekin erabiltzen ez bada, eta lana ez bada eraldatzen, eratorritzen edota berregiten. Gaur egun 30 estaturen baino gehiagoren legedietara daude egokituta, eta gurera etorrita, Bartzelonako Unibertsitateak prestatu zituen egokitzapenak —euskara ere itzulita daude—.

Edizioaren alorrera hurbilduz, jakina da Jabetza Intelektualaren Legeak hainbat eskubide moral zein ekonomiko esleitzen dizkiela egileei; hala eta guztiz ere, kasu gehientsuenetan aipatu eskubide ekonomikoak argitaletxeen eskuetan gelditzen dira edizio-kontratua sinatu ondoren, hau da, idazlearen kontroletik urrutira. Beraz, lanen errentagarritasuna desagertzen

* Nafarroako Liburutegi Nagusia

denean —hilabete gutxiren kontua izan ohi da—, argitaletxeen interesa akitu eta liburu asko eskuraezin bihurtzen dira. Hala ere, copyleftaren bultzatzaileek diote argitaletxeen negozio-eredua testuei gehitutako balio erantsian oinarritu beharko litzatekeela eta ez oraingo lanaren gaineko monopolio egoeran. Izan ere, uste okerraren kontra, frogatutzat ematen dute forma-tuok —digitala eta liburuak— ez diotela traba egiten elkarri: edizio digitalari esker, bai egileak bai liburuak ezagunagoak egiten dira, web-aren bidez benetan interesatuak areagotu egiten dira, eta hauetako gehien-gehienok paperezko edizio ongi zaindua erosteko prest agertzen dira. Hortaz, Creative Commons lizentziapean argitaratutako lan baten banaketa komertziala editore bakar baten esku gelditzen ahal denez, honek bakarrik izanen du aukera errentagarritasun ekonomikoa lortzeko; beraz, errantagarritasunak bere horretan segitzen du.

Aldi berean, kulturaren eskuragarritasunaren ikuspegitik, gehienez ere hainbat bibliotekatan topatzen ahal diren lan arraro edota minoritarioak, denon eskura izanen genituzke Interneten bitartez. Era berean, egile ezezagun asko eta askoren lanek aukera gehiago izanen lukete, eta ez dezagun ahantzi hauek —idazle gehienek alegia— irakurriak izateko idazten dutela, eta ez idaztea ogibide dutelako.

Bestalde, dagoeneko badira filosofia hau aurrera eramaten saiatzen direnak. Traficantes de Sueños Madril hiriko irabazi-asmorik gabeko elkarte kulturala da eta 1996an sortu zen zenbait giza mugimenduren topagune izateko helburuarekin. Egun, beste eginkizun batzuen artean, liburudenda, banaketa-etxe eta argitaletxe lanetan ari da, eta kolektiboa osatzen duten 15 lagunetatik 9k badute ordainsaririk.



54

Gaur egun, seguraski, bada argitaletxe bakarra Europan —Estatu espainola barne— kasik bere katalogo osoko lanak Creative Commons lizentziapean dituena. Horretaz gain, beraiek egindako edizio digitalak ere paratu dituzte sarean eskuragai, eta bestaldetik, beste argitaletxe batzuk ere animatu dituzte bide bera har dezaten: Virus, Atrapasueños, Likiniano Elkartea... Beraien esanetan, Traficantes de Sueños ekimen militantea bada ere, errentagarritasun ekonomiko txukuna lortu du negozio-eredu horren bitartez.

Urterik urte 12 bat titulu berri argitaratzen dituzte, beti gizarte-gaietara lotuak: filosofia politikoaz, hirigintzaz, feminismoaz, giza mugimenduez eta abar. Normalean egileek ez dakite deus ere copyleft eta inguruko lizentzien gainean; hori dela eta, Traficantes de Sueños-ekoek beraiek jakinarazten diete hauei aukera hortxe dagoela, eta kasu ia guztietan egileek ontzat ematen dute ideia, zeren liburuak erosiko luketenengana baino askoz ere jende gehiagorengaino iristeko parada ematen baitie.

Argitaletxe gehienak arras kontserbadore agertzen dira ohiko negozio-eredutik at diren ekimenekin. Berriz, argitaletxe alternatiboak —gutxiengo nabarmena oraindik— gero eta gehiago ari dira barneratzen copyleft filosofia. Honelako egoeraren aurrean azken hauek gremioaren berezko kontserbadorismo eta paradigma berriaren potentzialitatea ez ezagutzea dituzte etsai. Zernahi gisatara ere, oraingoz pisu gutxi dutelako, baina aurrerantzean copyleft filosofia dezente hedatuko balitz, litekeena da argitaletxe handiek eta CEDROk bat egitea beren pribilegio posizioa mantentzeko —ezin hobeki ezagutzen ditugu beren kanon famatuak: liburutegien maileguntzakoak, tresna erreproduzigailuentzakoak...—.

Azkenik, nahiz eta azaletik aipatu ere, euskaraz argitaratzen duten enpresen artean oso nabarmentzekoa da Susaren kasua. Izan ere, euskarazko literaturaren gaineko kalitate handiko baliabide eta eduki digitalak garatu eta denon eskura paratuz gain —armiarma webgunea—, beraiekin lan egiten duten egileen onarpena lortuz gero, hasi dira “askapen” batzuk egiten: liburuak liburudendetan salgai atera baino egun oso bat lehenago izaten dituzte eskuragarri, lanen komertzializazioa hasi zenez geroztik urtebeteko tarte pasatu denean Interneten paratzen dituzte liburuak, eta abar.



Gauzak honela, gutxika-gutxika agertzen ari diren seinaleon arabera —copyleft, open access mugimendua...— paradigma aldaketa baten aurrean izanen ginateke edizioaren alorrean ere. Ikusi behar.

Interneteko helbide batzuk gehiago jakiteko

<http://www.fsf.org/>

Free Software Foundation-en webgunea. Bertan software libreari buruzko era guztietako informazioa aurkitzen ahal da —historia, lizentziak, baliabideak...—. Baditu atal geografiko batzuk, bakoitzak bere webgunearekin.

<http://creativecommons.org/>

Izen bereko irabazi-asmorik gabeko erakundearen webgunea. Bertan dago berak sortutako lizentzien gaineko jakin beharreko guztia. Halaber, erakunde honek ere baditu bere atalak hainbat jurisdikziori egokituak.

<http://www.traficantes.net/>

Traficantes de Sueños argitaletxearen webgunea. Honetan, bere filosofiaren aldeko edukiez gain, bere lan-eginkizunekin zerikusia duten atalak aurkezten dituzte: liburudenda, banaketa-etxea eta argitaletxea.

http://biblioweb.sindominio.net/telematica/faq_edicion.html

Helbide honetan eskuragarri dago Traficantes de Sueños-ekoek prestatutako “FAQ sobre edición y copyleft”. Dokumentu hau oso argigarria da gai honetaz iritzi bizkorra eta zehatza nahi dutenendako.

<http://www.manualcopyleft.net/>

Goiko helbidean gaian benetan sakondu nahi dutenek dokumentu ezin egokiagoa topatuko dute: “Copyleft: manual de uso”. Hau ere Traficantes de Sueños-ekoek editatu dute —jakina Creative Commons lizentziapean— eta edizioaren, musikaren, artearen eta beste zenbait esparruren hainbat adituk hartu dute parte.

<http://www.armiarma.com/>

Susa argialetxeak eskeinitako webgune aparta. Bertan euskarazko literaturari buruzko mota askotako baliabideak dira guztion eskura: liburu osoak, kritikak, artikulak, eta abar. Benetan gomendagarria dela bere edukietan barna buelta bat ematea —baita ikuspegi profesionaletik ere—.

COPYLEFT

SORKUNTZA, ELKARBANATUZ DEFENDATZEN DA

Informazioaren gizartean bizi omen gara, konpetentzia basatiaren gizartean, indibidualismoaren gizartean, zapalkuntzaren gizartean, jabetza pribatuaren gizartean, ... luze jarraitu genezake sistema kapitalistak bultzatzen dituen eredu hauek izendatzen, baina argi eta garbi erakusten ari gara guzti honen alternatiba existitzen dela eta martxan jartzen ari garela!! Honen adibide copylefta daukagu eta gai honen inguruko zirrikitu guztiak argitzeko Xabier Barandiarani egin dio gazte sareak elkarrizketa. Euskal Herriko copyleft koordinadoraren partaide izateaz gain, sindominio.net eta metabolik bilboko hacker laborategiko partaide eta ere bada.

<http://gaztesarea.net/kalaportu/edukia.php?id=273>



GAZTE SAREA: Gaurkoan ahotan izango dugun gaia copylefta da, baina honetaz mintzatzeko beharrezko zaigu copyright-az zertxobait gehiago jakitea. Zer da copyrighta?

XABIER BARANDIARAN: Labur labur esanda, informazioaren kapitalismoak bere biziraupenerako behar duen azpiegitura sozial eta juridikoa da.

Helburu oso ezberdinekin sortu zen, inprenta jaio zenean, inprentaren industrian konpetentziak erregulatzeko tresna bezala sortu zen. Garai hauetan copyrighta ez zen publikoari begira sortu orduan publikoak ez bait zuen maila honetan inolako erreproduzio ahalmenik

Gaur egun ordea guztiz aldatu da textuingurua eta gutariko bakoitzak eskuragarri ditu erreproduzio metodo ezberdinak, fotokopiagailuak...kasu.

Beraz garai baten inprentaren industria erregulatzeko sortutakoa, gaur ezagutza eta informazioa esplotatzeko erabilia da. Kultura herritarraren oinarri den jakinduriaren elkar trukaketa librearekin bukatu, eta elkar trukaketa horrek kolektibo oso bati ematen dion aberastasuna errotik mozteko asmoz.

Momentu honetan copyrightaren funtzioa beraz, kapitalismoaren eta pribatizazioaren egiturapean eraiki daitekeen informazio trukaketa sistema sostengatzea da. Guzti honetan jabetza intelektualaren kontzeptua sartzen delarik.

G.S: Jabetza intelektual aipatu duzu, baina zelan ulertu dezakegu batenbat ideia kreatibo baten jabe izatea?

X.B: Hau orain dela gutxi agertu den kontzeptua dela esan dezakegu, aintzina jabetza intelektualik ez, baina patenteen legea zegoen ALDE BATETIK ETA COPYRIGHT-A BESTETIK, eta honek industrien arteko kompetentzia erregulatu zuen. Pixkanaka baina, kapitalismoa espazio industrialetik espazio informazionalera igaro ahala interes haundiagoa sortuko da eta orduan hasiko da garatzen jabetza intelektualaren kontzeptua, legeetan orain gutxi isladatu dena.

Guzti hau gezur galanta da gainera, inork ez bait daki kontzeptua bera zer den azaltzen, lehen esan bezala, patente edo erregulazio forma oso ezberdinak bere gain hartzen dituelako.

Ateratzen dugun ondorioa beraz copyrightarekin atera dugun berbera da, hau da informazioaren kapitalismoa sostengatzen duen ideia dela, kulturaren historia industrializatu nahi duena, azken finean inoiz urria izan ez den kulturari jabetzaren kontzeptua aplikatu nahi diona.

Norbaitek, urria den zeozer eskuratzen/sortzen duenean eta jendartean banatu ostean zeukan hori galtzen duenean asko jota ulertu daiteke jabetzaren kontzeptua.

Adibidez, nik aulki bat eraikitzeke denbora bat eman ostean norbaitek erabili nahi badu, edo ipurdi bi sartzen ditugu aulkian edo ni aulki gabe geratzen naiz. Kasu honetan justifikatu halko litzateke jabegoaren kontzeptua, beste batekin konpartitzeak zuri galera sortzen dizulako. Ideiekin ordea ez da hau gertatzen, nik norbaitekin ideia bat konpartitzen dudanean, ideia ez dut galtzen besteak eskuratzen duenean. Jabetza intelektualaren kontzeptua beraz, ezin da filosofikoki ezta sozial edo politikoki sostengatu. Gabezirik sortzen ez den tokian gabeziak sortzea litzateke, gainera jendeari kopiatzea galeratzen zaio, kopia gutxiago egotean merkatuan balore haundiagoa izateko.

JABETZA INTELEKTUALA JUSTIFIKATZEKO SORTZAILE INTELEKTUALAREN BIZI BEHARRAREN AITZAKIA ERABILTZEN DA SARRITAN. GAUZA DA EZIN

*DUGULA SORTZAILEEN BIZITZA GIZARTEAREN KULTUR ELKARTRUKE
ESKUBIDEA ZAPALDUZ ZIHURTATU.*

G.S: ESKURATU, NAHASTU ETA KOPIATU. Badira sorkuntza era honetan baino ulertzen ez dutenak. Zer deritzozu?

X.B: Jabetza intelektualak bi aspektu ditu: batak jabegoa gorde eta partehartzaile oro bazterten ditu ; besteak, jabearekin adostasun batera helduz, jabego horretaz baliatzeko dei egiten du.

Honekin loturik, badago copyrightari egiten zaion beste kritika bat, jabetzari loturik baino, sortzailearen kontzeptuari loturik datorrena. Sortzailea, abilezia izugarria duen geinu bat balitz aurkezten zaigu, baina azken finean sortzaile oro bere garaiari ETA GIZARTEARI loturik dago nahita nahiez. Guztiek hartzen dituzte ideiak beraien sortzeko gaitasunetik haratago doan textuinguru KULTURAL, politiko, sozial eta emozional jakin batetik. Honekin ere ez dut esan nahi sortzailearen lana errekopilazio hutsa denik, baina edozein kasutan existitzen den lan bakoitzetik benetan originala izango litzatekeen zatia zein den erreparatzea ia ia ezinezkoa litzateke eta lortuz gero, minimoa litzateke. Beraz, gure lanean inplizituki edo esplizituki, parte hartu duten pertsona eta textuinguru sozial guztiari ordaindu beharko bagenio, ezinezkoa litzateke zehozer berria sortzea millonada bat ordaindu gabe...

Baina jabetza eredu hau inposatzen duen kapitalismo informazionalak berriz, ez du askotan guzti hau kontutan hartzen eta telebistarako edozein iragarkitan agertzen diren aspektu kultural, simbolo eta gizartearentzat ulerkorrak diren hainbat kontzeptu esplotatzen ditu, azken emaitzari jabetza bat eta salmentarako baldintza batzuk jarritz.

G.S: Copyrightaren filosofia orduan, zure lana egiteko, norbaitek egindako zeozertan oinarritu eskero ordaindu behar izatean oinarritzen da. Egilearen eskubideak babesturik al daude horrela?

X.B: Hau azaltzeko ondasun materialekin egingo dut metafora: Sistema kapitalista honetan produktore eta eroslearen artean diru gehienarekin geratzen diren bitartekariak daude. Honen adibide kolonbian pobrezian bizi direnak esplotatuz egiten den kafea da, baina ez da adibide bakarra berdin berdin gertatzen bait da sektore guztietan. Arazoa da, espektakuluaren gizarte honetan exitua lortzen dutenak soilik bihurtzen direla irudi publiko. Ricky Martin bezalako musikari famatu bakoitzaren atzean dauden milaka musikari ez ditugu kontutan hartzen seguruenik guzti hauek baino musikari obeak izan daitezkeen arren. Baina esan bezala hauek ez dute estatus hori lortu, status hori lortzea autoreak beraiek produktu bilakatzen dituen industria oso baten esku bait dago. Industria diskografiko edo editorialaren barnean egilea pixkanaka boterea galduz doa, momentu batean copyrighta desagertzea ere bere eskuetatik kanpo geratzen delarik, bere atzean dagoen industriaren nahietara makurtzera behartzen dute beraz.

Honetaz gain sortzaileak babesteaz ari direnean ilea hartzen ari direla erakusten diguna zera da; egileek askotan defendatu dute beraien lanak copyleft izatea nahi dutela, libreki zabaldu daitezen. Orduan ikusten da zeinen interesak defendatzen dituzten. Bere produktuak libreki kopiatzen direnean, autoreek zer jan izango ez dutela diote, baina guzti hau aitzakia baino ez da, editorial eta diskografikei negozioa bukatu ez dakien.

Kontutan hartzeko ideia gehiago ere badago, adibidez sortzaile askok ez dugula uste gure lanen kopietatik soilik bizi behar dugunik. Hitzaldiak emateak, kontzertuak emateak borobiltzen du gure lana, orduan eskeintzen ari bait gara momentuko zerbitzu bat.

Beste kasu batzuei erreparatzen badiegu harrituko ginatke zein errez hartu dugun normaltzat norbaiten lana oinarri hartu dugulako soilik ordaindu behar izatea. Imagina ditzagun Arzak eta Argiñano gure etxeetan beraien errezetak kopiatzen direla eta telebistan negarrez! Hauen lana eta diru iturria jendearentzako sukaldatzean datza, ez inork kipula eta txorizoa era konkretu baten nahastu duela eta beraien partea erreklamatzean!

EZIN DUGU SORTZAILEAREN BIZIMODUA GIZARTEAREN KULTURA ELKARBANATZEAREN ESKUBIDE ZAPALKETAN OINARRITU.

G.S: Copyrightak orduan sormena mugatu edo gutxitzen duela esan dezakegu?

X.B: Edozein kasutan baietz esango nuke, adibidez bideoa edo musika erabiltzen dituen batek beste norbaitengandik hartutako sampler edo aukeratutako irudi bakoitza ordaindu behar izango balu oso zail izango luke bere lana garatzeko orduan.

Copyleftak eskeintzen duen aberastasun bat zera da, elkar trukerako espazio amankomun bat sortzean sormena bizkortzen duela, kultura produkzioko espazio kapitalistetan ordea, baimenik gabe konbinatu edo rekonbinatu ezin daitekeenez guztiz mugaturik aurkitzen dira.

Egoera honetan muntinazionalak sortzen dira, sofwararen kasuan adibidez Microsoft edota IBM ditugu esagunenak. Hauek kode eta patente askoren jabe izanik, mafia moduko bat osatzen dute eta beraien artean konpontzen dira zeozer behar izanez gero. Hori bai, patenterik ez duen edo hainbeste lortu ez dituen enpresa txikiak jokitik kanpo usten ditu inolako eskrupulorik gabe.

Hau ilusita sinestezina badirudi ere, copyleftak duen indar generik nagusiena software librea da. Langileria mailan lankidetzaren bultzatzen duen tresna kolektibo hau munduko enpresarik nagusiena mehatxatzen ari da. Esan bezala microsoft munduko enpresarik nagusiena da, edozein errege edo petroliferen gainera, enpresaren zuzendari biak munduko pertsonarik aberatsenak dira. Beraz, txalogarria da benetan inolako antolakuntza

jerarkikorik gabe, laguntza ekonomiko potenterik gabe, sistema kapitalistan sostengatu gabe lanean dauden pertsonen informazioaren kapitalismoak sorturiko produktuak baino aukera gehiago eskaintzen dituen produktua sortzea.

G.S: Elkarrizketaren muinera ailegatuta, azaldu eiguzu, zer da copylefta? Zertzuk dira copyleft lizentziak eta zelan erabiltzen dira? Eredu konkretu bati jarraitu beharra dago ala egileak berak erabaki ditzake erreserbatu nahi dituen eskubideak?

X.B: Copyleftaren sorrera programazioaren ingurunean topa dezakegu, arlo honetan batez ere, elkarlanean arituz gero askoz gehiago aurreratzen delako. Informatikaren ezaugarria da hau, programak geroz eta konplejuagoak dira, baina beti ere aurretik egindakoetan oinarritzen direlako. Copyrighta esartzen hasi zenean oiartzun eta zalaparta haundia sortu zuen programatzaileen artean, alde batetik unibertsitateetan mugitzen zirelako, berez trukerako eta elkarlanerako espazioak; eta bestalde programazioarekiko ikuspegi matematikoa zutelako eta pentsaezina iruditzen zitzaaien ideia hain abstrakto eta unibertsaletan oinarritzen ziren ideia matematikoen jabe inor izan ahal izatea.

Hau ikusirik asko errebelatu egiten dira, hain artean Richard Stallman, gaur egun software librearen sortzaileetako bat moduan ezagutzen duguna. Honek zera esan zuen: "alternatiba bat bilatuko dut, sistema hackeatuko dut". Hacker baten jarduera tresna teknologiko baten transformazio txiki bat eginez bere erabiltzeko aukerak haunditzean datza, tresnak eskeintzen dituen aukerak gainditu eta erabiltzaileari askatasun haundiagoa ematen dio. Finean Stallmanen nahia sistema juridikoa hackeatzea zen, copyrightaren legeetan hutsune bat bilatu sistema beraren baitan askatasun espazio bat sortzeko. Beraz, copyrightaren sistemak askatasun espazio horrekin bukatu nahi izatekotan bere buruarekin bukatuko luke ere. Ideia on honetatik sortu zen copylefta. Izenari erreparatuz gainera hitz joko polita agertzen zaigu: copyrighta kopiarako eskubidea den bitartean copylefta ezkerreko aldea da, politikoki honek dituen konnotazio guztiekin

Hariari jarraituz, Stallmanek copyleftaren ezinbesteko lau printzipio ezarri zituen:

1. Erabiltzeko askatasuna
2. Kopiatzeko askatasuna
3. Aldaketarako askatasuna
4. Aldaketa publiko egiteko askatasuna

Copyleftak ahaztu ezin daitekeen beste printzipio bat du: aukera guzti hauek eskeintzeko baldintza bakarra zera dela, kopia edo aldaketa oro copyleft

izatea. Honek inork kolaborazio prozesua itzi ezin izatea dakar, eta copylefta den produktu bat copyright bihurtu ezin izatea.

Kapitalismoa, sorturikoaz jabetu ahal izatea ere eragozten du eta era berean elkar trukaketa librea den espazio amankomun eta kolektibo bat irudikatzen du.

Guzti honetan aldagarri ezberdinak agertzen dira, mundu guztiak prozesua itxi ezin izanarekin ez bait du bat egiten eta honetaz gain egileak erabiltzaileari eskubide ezberdinak ematearen aukera ere badago. Adibidez beste baten lana aberaztasun propiorako baliatzea galeraziko duen eskubidea litzateke zihurrenik arrakasta izango duen aldagarrietako bat. Modu honetan egileak, bere lana publikatu nahi izan duen enpresaren eskutik dirua jasotzeaz gain, jendartean eta merkatuaren interesetatik kanpo, bere lanaren erabilpen soziala egitea bultzatzen du.

Gai hauetan zehazki interesaturik egotekotan badaude web horrialde ezberdinak copyleftaren filosofiarekin bat egiten dutenak, hauen artean creative commonsen duena, nahi dituzun lizentziak era pedagogikoago baten aukeratzen laguntzen dituztenak. Kolektibo honen atzean abokatu talde bat dago, lizentzia hauek kontextu juridico ezberdinetan baliagarri izateko diseinatu dituztenak.

G.S: Arazo juridikorik ekar dezake zerbait copyleftarekin kaleratzeak?

X.B: Arazorik ez luke ekarri behar, hala ere enpresen interesen kontra doan einen honekin apurtzen saiatuko dira. Lehen esan bezala copylefta, copyrightaren legeen barruan aurkituriko hutsuneetatik jaioa da eta berez copyleftaren legerik ez dagoen arren legeak babestu egin behar du.

Baina estatu espainolean copyleft komunitateko MERCÉ MOLIS kazetariak bizi izan du egoera salagarri bat. Berak idatzitako artikulu bati, zenbait periodikuk publikatzean, kopia bera copylefta zela jartzea ukatu zioten. Guzti hau salatzeke copyleft komunitatearen laguntza osoa jaso zuen eta azkenean egunkariak atzera egin behar izan zuten.

Informatikaren arloan aurrera egin ez duten pare bat kasu edo egon dira, baina hauetan ere copylefta infrinjitu duten enpresak atzera egin dute, eta ez da epaiketarik egin. Oso kasu gutxitan behar izan du inork laguntza juridikoa, batez ere ia inork ez duelako epaitegietan bukatu.

Honekin loturik nik zera azpimarratuko nuke, kapitalismoan enpresa bakoitzak bere abokatu taldea duen bitartean, ez du inork honen gaineko aparteko ardurarik hartuko, batez ere enpresa ezberdinen harteko kompetentzia merkatu batetaz ari garenean. Baina copyleft komunitatea sarearen bitartez ondo komunikaturiko komunitate sendo eta batua da, eta edozein zapalkuntza gertatzekotan batera erantzuten dakiela erakutzi du

baten baino gehiagotan. Beraz, nik deialdi bat egingo nuke, jendeak beldurra alde batera utzi eta copylefta erabili eta komunitatearen parte izan dadin.

G.S: Gaur egungo sistema kapitalistan garrantzia duen bakarra, egiten den edozein gauzatik etekin ekonomikoa ateratzea denean, zer apporta dezake copyleftak?

X.B: Informazioaren gizaratean copylefta politika egiteko erarik erradikal eta eraginkorra dela esango nuke.

Produkzioaren motorea den guztion arteko konpetentziari eta ez daukanaren marginazioari aurre egiten dio, elkartrukerako eta ondasun kolektiboen espazio kolektibo bat irekitzen duen momentuan.

Pixkanaka software librea erabiltzen hasi diren enpresen kopurua handitzen doa eta honek tokian tokiko sare ekonomiko potente bat sortzea permititzen du, jadanik ez bait du mega enpresa baten menpe egon behar. Software librearen ez du EEBezeko dependentzia jerarkiko bat, software librearen errekurtso kolektiboen eskeintza paregabea dauka, copyleft eskuliburu edo gidak, arazoak konpontzeko baliagarriak diren web orrien zerrenda amaigabea...adibidez. Era honetan eredu ekonomiko ezberdin bat bultzatzen ari gara, tokian tokiko errealitateari egokituko zaiona.

Euskal Herrian adibidez jende piloan dago software librearen itzultzen ari dena, software hauek microsoftenak izango balira baimena eskatu beharko litzateke; eta argi dago microsoftek ez duela merkatuan hain etekin gutxi emango dion produktu batetan inbertituko eusko jaurlaritzak laguntzarik eskeintzen ez badio behintzat. Software librearekin berriz guzti hau posible egiten da, edozeinek produktua obetzeko, itzultzeko edota eraldatzeko aukera duelarik.

Adibide esanguratsu moduan esan dezakegu Brasil izan dela copylefta bultzatu duen lehen gobernuaren aurretik, diru gehiago inbertitzen zen Microsoft lisentziak ordaintzen gastu sozialetan baino, datu arrigarria hau hainbesteko pobrezia dagoen herrialde batetan! Copylefta erabiltzen hasten diren momentuan aldaketa izugarria ematen da, informatika arloan sare sozial izugarria daukate martxan nahita nahiez jendartearen ongizatean onerako baldintzatzen duena; hori bai sare sozial autonomoa eta EEBehen dependentziarik sortzen ez duena.

G.S: Babago gaur egun pil pilean dagoen gai bat. Lehen aipaturiko Bisbal eta konpainiak asko hitzegiten dute pirateriaz...baina justifikaturik al dago autore eta diskografika ezberdinek pirateriaren kontra abiatu duten mugarik gabeko guda hau? Musikaren arloan ematen da batez ere, ez?

X.B: Bai, azken finean guzti honekin kaltetuen ateratzen ari den industria da, baina argi geratu dadila industria dela kaltetua ateratzen ari dena eta ez musikariak. Musikari txar askok ordea produktoreei aurpegia ateratzen diote

beraiengandik izango ez balitz zentimo bakar bat ere ikusiko ez luketelako. Beste askok ez dute gaurko merkatuaren sistema zalantzatan jartzen eta ezin dute beste musika distribuzio eredu bat imaginatu, beraz diskurtso ofizialarekin men egin eta amen.

Sistema, pirateriaren inguruan diskurtso oso bat garatzen ari da, jendeak ahastu edo zalantzatan jarri dezan orain arte kulturaren historia izan dena eta honetarako estrategia publizitarioak eta exagerazioa erabiltzen ditu. Gure egunetan “terrorismoa”ren aitzakipean edo aintzina, imperio ingelesaren garaian piratekin egin zuten moduan kolektibo oso baten kriminalizazio, marginazio edota ilegalizazioa da bultzatzen dutena.

Botereak idatzitako historiaren erruz dauka jendarteak piraten inguruko irudi txarra. Hauek hiltzaile odoltsu moduan aurkeztu dizkigute, baina errealitatea berriro ere oso ezberdina dela konturatzen gara. Pirata askok agenda politiko bat zeukaten, mundu alternatibo bat eraiki nahi zuten eta beraien ekimenen artean esklabuen errutak saboteatzea eta indigenei lapurtutako dirua errekueratzea ziren.

Gaur egun piraten termino manipulatu hau berriro atera dute, kriminalizazioaren helburu bakarrarekin. Izan ere marinel ingelesei burua mozteaz urruti, egiten duguna egin daitekeen naturalena da: daukaguna konpartitu.

Beraz, orain dugu pirateria izkutuan praktikatzeari utzi eta eskubide kolektibo moduan errebindikatzeko momentua. Borroka garrantzitsu baten aurrean gaudela deritzot, kriminalizazioa geroz eta haundiagoa eta errepresioa geroz eta ilunagoa den honetan mugitu eta erantzun beharra daukagulako!

Frantzian dagoeneko informazioa trukatzeko sare alternatiboak erabili dituzten pertsona batzuk kondenatuak izan dira. Gainera argi dago errepresioa era selektiboan egiten ari direla ezinezkoa bait litzateke mundu guztia gartzelara sartzea, katastrofiko! Eskarmentu publikoa suposatuko duten zigor hauek ezartzen dituzte, baina esan bezala orain da kalera atera eta arrotasun guztiz piratería errebindikatzeko momentua.

Honek inkizizioan edota errepresio erlijiosu handipean sexualitatearekin gertatzen zena gogorarazten dit, inork nahiz eta masturbatu eta harreman sexualak izan onartzen ez zuenean. Nolabait esatearren informazioaren askatasun sexuala behar dugu, praktikatu eta eskubide legitimo moduan aldarrikatuko duguna.

G.S: Liburu baten milaka kopia egoteak zertan egiten dio on egileari?

X.B: Ezagutzaren gizartean, ezagutzaren ekonomía, harretaren ekonomía bihurtzen da. Gaur egun informazioaren saturazioa sufritzen dugu, eta zaila da gure aurretik pasatzen den guztiarengan harreta jartzea, beraz copyrightak

kriston akatza egin duela esan genezake, copyrighta daukaten produktuak gutxiago zabaldu eta gutxiago ikusiko bait dira. Gehien zabalduko direnak beraz copyright klausularik ez dutenak izango direlarik.

Gaur egun komunikabideak eta publizitatearen industriaren monopolioa daukatenak, internetek posible egiten duen komunikazio horizontalaren ondorioak sufritzen ari dira edo bestela laister sufrituko dituzte. Gaur egun oraindik merkatu kuota bat eta egoera pribilejiatu bat mantentzen dute, baina denbora gutxirako izango da hau; batez ere sistema hau goitik behera haustea gure esku dagoelako eta copyleftaren aldeko diren autore italiar batzuen esanetan: "kulturaren hastapenetatik datorren itsasikara izugarri bat gara eta sistema kapitalistaren aginduetara dauden enpresa guzti hoiek, ez dira informazio trukapen librea bultzatzen duen uholde hau gelditzeko gai izango"

G.S: Euskal Herrian pixkanaka erabiltzen ari da copylefta. Ezagutzen al dute idazle, artista, musikari eta bestelakoek aukera hau?

X.B: Egia esan ez dakit ze puntutaraino kontenplazten duten aukera hau. Ezagutzen ez dutenak egon badirela zihur nago baita ezagutu nahi ez duenik ere!, honek ezinbestean, beraien egiletasuna, hala nola sostengatzen diren sistema zalantzatan jartzea ekarriko lukeelako.

Nire ustez ordea, gurea moduko herri txiki baten, gure hizkuntzak bizirauteko oztopo haundiak gainditu behar dituen honetan, copylefta aukera bakar giza ikusten dut.

Adibide simple bat jarrita, imagina dezagun fisisa irakasle batek liburu baten falta duela bere klaseak emateko. Existitzen direnak zaharkituak daude denbora gutxian hainbeste aurrerapen dituen zientzia bat dela kontutan izanik. Irakasle honek aurreko egilearen edota argitaletzearen baimenik ez badu liburuan bertan aldaketak egiteko, zihurrenik denbora edo gogo faltagaitik, ez du liburu berria idatziko.

Beste gizarte eredu baten ordea, COPYLEFT-AN OINARRITURIKO, ikasleek beraiek edo irakasleak, pixkanaka liburua moldatu ahalko lukete; eginda dagoena oinarritzat hartu eta hau obetzeko aukera emanaz.

G.S: Bukatzeko sarearen inguruan Brewster Kahlek behin horrela esan zuen: "gure burmuinaren %60^a askatzen duen arkitektura eraikitzen ari gara, aldi berean, poportzio berean askatasun hori ukatuko duen lege sistema bat eraikitzen ari garenean" Zer deritzozu?

X.B: Mundu mailan garatzen ari den lege sistema hori, sareak eskeintzen dituen posibilitateen aurkakoa da guztiz.

Beraz, momentu hau aprobetxatu nahiko nuke borroka honek daukan dimentsio politikoa emateko. Gaur egun aurrerapen teknologikoei esker existitzen den informazioaren gizarte honi, nahi diogun egitura eman eta

mundu mailako elkartruke eta elkartasunerako tresna osatzeko momentua, beraz.

COPYLEFT 2005 Gaztesarea eta Xabier Barandiaran: Testu hau Creative Commons-en "Aitortu-PartekatuBerdin 2.5" lizentziapean dago.

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Lan eratorriak egiteko

Baldintza hauetan:

- Aitortu. Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesak duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).
- Partekatu baimen beraren arabera. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.
- Lana berrerabili edo banatzerakoan, argi eta garbi utzi behar dituzu lan honen baimenaren baldintzak.

Baldintza hauetakoren bat ezarri gabe utz daiteke, egile eskubideen jabeak hartarako baimena emanez gero. Baimen honek ez ditu ezertan gutxitzen edo mugatzen egilearen eskubide moralak.

Oharra disclaimer

Aurrekoak ez die eragiten erabilera zilegien eskubideei edo legez aitortutako beste mugakizunei.

Hau gizakiek irakurtzeko erako laburpen bat da; lege balioko testua (baimen osoa) hurrengo esteka jarraituz eskuratu daiteke:

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/2.5/es/legalcode.eu>

KREAZIOA MUNDIALIZAZIO ETA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

Claude Demarigny

Ez dut uste gauza izango garenik, ez dut esango hamar urte barru gertatuko dena aurreikusteko ezta antzemateko ere, baizik eta etorkizun hurbilean, hemendik bost urtetara adibidez, gertatuko denari aurre egiteko.

Azken hogeitabost urteei buruz hitz egiten badugu bakarrik, zera ikusten dugu: espezialistek ez dute aurreikusi mende honen amaierako eboluzio historikoa markatu duten gertaerarik. Historiagileek, ekonomistek, politologoek, militarrek eta beste hainbatek huts egin du. Gogora ditzagun adibidez petroleoaren krisialdia, 1973an, Jomeiniren etorrera, bloke sobietarraren erorketa eta guzti honen ondorio ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak. Eboluzioak ez du planifikadorean bide logikoa eta razionala jarraitu, susma ezineko gertaerek hamabosteko plan guztiak izorratu dituzte irrazionalki. Deabruak barre egiten du!...

DOLAR JAUNA

Ondorioz, prestatu gabe aurkitzen gara liberalismo komertzial zaharrak, kontrabotererik gabe, agintzen duen mundu baten aurrean. Diru jauna Dolar jaunaz jantzita itzuli da. Eta boteretsuenaren legeak agintzen du berriro. Oihanaren legea da. Jokoan, beraiek dituzte bateko eta triunfo guztiak. Batzuek irabazi bezala besteek galduko dutela ederki dakite. Ondorioa: jokatzeko azken hauen desinteresa. Asiako ikasle onek irabazteko jokatzeko dute, Afrika eta Ekialdekoek Erdi Aro teokratikora itzultzea nahiago dute. Gaurko gizakiak ez du bere etorkizuna kontrolatzen, mota guztietako desbideratzeen aurrean aurkitzen da. Edozein gauza gerta daiteke eta, jakina, gertatzen da: Mafiak Errusiako ekonomiaren kontrola berreskuratzen du, drogak petroleoaren etekin bikoitzak sortzen ditu, umeen prostituzioa turismo sexual moduan industrilizatzen da, sarraski eta genozidio arrazistak errepikatzen dira Bosnian, Somalian, Ruandan eta beste lekuetan...

Horrelako nahaste kontrolgabeko eta kontrolaezinaren aurrean, nire zalantzekin jarraitzen dut: Zein datu fidagarri eta iraunkor ditugu datorkigun eboluzio kulturalaz gutxienezko sinesgarritasun batekin hitz egiteko? Dakidanez, guztiok bizi eta ezagutzen dugunaz mintzatuko naiz bakarrik, etorkizun kultural hurbila kolokan jartzen duenaz, alegia. Zalantzen ondoren, beldurrak. Gure gaurko egoeran bi arrisku nagusi ikusten ditut: alde batetik, elkartrukeen mundializazioa, boteretsuenaren lehentasunean oinarrituta; bestetik, teknologia berrien hobekuntza eta merkatzea, zeinak bere eragin ekidinezina izango duen etorkizuneko gizakiarengan -nire ilobetaz hitz egiten ari naiz-.

Gaur egun mundializazio kulturala borroka komertzial gartsu bat jasaten ari da GATT nazioarteko komertzio librearen itunaren negoziaketan. Jokoan, milaka milioi dolar dabilta ikus-entzunezko produktuetan (zinema eta telebista).

Eszenarioaren gainean, iparramerikako ekoizpen eta banaketaren konpainia handiak daude, Jack Valenti-k, Motion Picture Association of America-ren presidentea, ordezkatuta. Hauen aurrean Egileen Elkarteak; munduko

gainerako egile eta burutzaileen defentsan. Gatazka: lanen jabetasuna. Lanak sortzen, asmatzen, idazten edo burutzen dituztenekoak dira? Edo bere ekoizpenerako dirua jartzen dutenekoak? Adimeneko lanak idazten dituenaren jabegoa dira bizitza osorako (egile-eskubidea), edo ugaltzeko eskubidea erosi duenarena (copyright)?

Bi kontzepzio hauen ondorioak oso garrantzitsuak dira kreazioaren etorkizunerako. Lana produktu komertzial bat bada, bere burutapenean inbertitu duenari dirua ekoizteko, argi dago komertzializazio kriterioak izango direla nagusi, inkestak egingo dira publikoaren gustoei buruz, produktuak gero eta estandarizatuagoak izango dira eta, larriena, edozein lan pertsonal, original, kritiko eta berritzaileak sistematikoki arbuatuko da. Ezaguna da editore eta produktoreek daukaten beldurra uneko korrante eta modetatik kanpo dauden lanetan inbertitzeko. Horregatik, komertzio askatasunak adierazpen eta kreazio askatasuna erahiltzen ditu. Are gehiago, banatzaileek duten botereak modak beraiek sor ditzaten eragiten du eta moda haietatik gaurko kultura identifikatzen duten modelo kultural unformatzaileak ateratzen dira.

Kreazioaren alde, Europako herrialdeek «salbuespen kulturalaren» eskubidea inbokatu dute eta momentuz, produktu kulturalak nazioarteko elkartruke komertzial librearen itunetik bereiztea lortu dute (GATT). Noiz arte?

MENPEKOTASUN KULTURALA

